

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 5523

*AGINDUA, 2022ko azaroaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, «San Benito Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena, Batxilergo Orokorra modalitatea eskaini dezan.*

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuak ikastetxean Batxilergo Orokorreko modalitatea irakasteko baimena eskatuz hasitako espedientea aztertu da.

Espedientea ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek txostena eman dute.

Xedapen hauek ikusi dira: 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, honako hauek aldatzen dituen: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzako; 243/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen; 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, ikastetxe pribatuei unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa; 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen, eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerakoak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari Batxilergo Orokorreko modalitatea irakasteko baimena ematea, 2022-2023 ikasturtetik aurrera.

Kode-zenbakiak: 012341 (EAE) eta 20002517 (unibertsala).

Izen generikoa: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua (HLBHIP).

Izen espezifikoak: «San Benito Ikastola».

Titularra: «San Benito Ikastola Kooperatiba Elkarteak».

Helbidea: Euskadi enparantza zg.

Udalerrria: Lazkao.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 15 unitate, honelako edukierakoak:

- 5 unitate urtebetetik beherako ikasleentzat, bakoitza 8 ikaspostuko edukierakoa.
- 5 unitate urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat, bakoitza 13 ikaspostuko edukierakoa.
- 5 unitate bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat; bakoitza 18 ikaspostuko edukierakoa.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 189 ikaspostu.

2022ko abenduaren 23a, ostirala

- Lehen Hezkuntza: 24 unitate, 600 ikaspostu.
- Bigarren Hezkuntza: 16 unitate, 480 ikaspostu.
- Batxilergoa: «Zientziak eta Teknologia» eta «Giza eta Gizarte Zientziak» eta «Orokorra», modalitateak. Edukiera: 5 unitate, 175 ikaspostu.
- Hezkuntza Berezia: 3 gela ireki.

Bigarrena.– Batxilergo orokorreko modalitate berria baimentzeak ez dakar ikastetxeari baimendutako unitateak zabaltzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan jasotako baimena emateak ez dakar, inola ere, hezkuntza-iturrien araubidearen bidez laguntzak lortzea.

Laugarrena.– Ikastetxearen titulartasuna indarrean dagoen araudia betetzera behartuta dago, ikaspostu-kopuruari, ekipamenduari, titulazio akademikoari, irakasleen hizkuntza-eskakizunari eta indarrean dagoen eta aplikagarri den gainerako legeriari dagokienez, bai eta dagokion aldaketa eskatzera ere, legezko ordezkariaren bitartez, erregistroko edozein datu aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetu egingo litzateke.

Bosgarrena.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete behar du, bai eta indarrean dagoen legerian adierazten diren higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna ikastetxeko erakunde titularrari dagokio.

Seigarrena.– Baimendutako irakaskuntzen aldaketa ofizioz inskribatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeen Erregistroan, dagozkion erregistro-inskripzio osagarrien bidez.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.